

Donostian mila bederatzireun eta berrogeitamargarren urteko Urrilaren ogeitazazpian, Ekauta-jauregian, Azkue, Etxaide, Elissalde, Krutwig ta Oleaga euskaltzainak baturik, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindiaren batzarra, Dassancek eta Landek ezin etorria iragarri daue.

Araudizko otoiiza egin-eta, maipuruak adierazoten dau Zamarripa euskaltzain bikañaren eriotzea. Oso mintzen dau barri itun onek Euskaltzaindia ta onan agererao daitela erabagi da. Ildakoaren anai-arrabai tamal agurra bialdu dagioela, bere bai.

Urkijo jaunaren eri luze ta astuna dala-ta, beronen sendatzea zein atseginez Euskaltzaindiak ikusiko leukean ager araztea beré, erabagi da.

Urrengo, adierazo da Naparroako Ekautak bost mila laurleko urtero eta Bilboko Udalak mila laurleko aurten, Euskaltzaindiari emoten dautsoela. Pozik artu dira barri oneek eta autaturiko amoleai eskerrak agertzea erabagi da. Baita beste Udal eta izaki batzura diru-laguntasuna eskatzea bere.

Naparroako Ekautak eta "Musée Basque"-ko Artekari jaunak, Lekuona, Dasantze ta Lafon euskaltzain barrien sarrerak aundikiro ospatzeko emon euren laguntasuna gomutaturik, Euskaltzainburuak eskerrak emon daioezala, erabagi da.

Bilboko Apezpiku barriak bere izentatze-agiria euskeraz bere irakurtzea ebatzi euan; bere lenengo gogozain-idazkia bere, euskeraz eta erderaz argitaratu dau. Ori dala-ta, euskereari abegi ona egiten dautsan ezkerro Euskaltzaindi onen atsegina jakinerazotea erabagi da. Baita, Donostiako Apezpikuari beste orrenbeste egin dagiala eskatzea bere. Eta batari ta besteari Euskereazko Euskaltzaindiaren laguntasuna eskiñi bekio.

Gero irakurten da Azkue, Lekuona ta Krutwig euskaltzainen idazki bat; beronen gaia da Euskaltzaindian dagoan utsa, Nikolas Ormaetxea ("Orixe") euskaltzain-urgazleaz bete bear leitekela. Oraingoz geldi bego, ebatzi da.

Pozik ikusi da Ormaetxea jaun orrek oraintsu argitaratu dauan *Euskaldunak* deritxon poema edo olerki ederra. Onan jakinarazi bekio.

Azkenez, orainarte euskerearen alde egindako lanen eskergarri ta aurrerantze-koen pozgarri izan dakion, urrengo jaun oneek euskaltzain urgazletzat artzea erabagi da:

- Migel Arrutza.
- Bernardo Garro.
- Antonio Maria Labaien.
- Joakin Zaitegi.

- Blas Fagoaga.
- Juan Thalamas Labandibar.
- Ignazio Larramendi.
- Dominique Dufau.
- Pierre Gilsou.
- Sauver Arotzarena.
- Pierre Narbaitz.
- Dominique Subeleta.
- Leon Leon.
- Pierre Txarriton.
- Jean Jauregiberri.
- Gilaume Epherre.
- Jean Txabaño.
- Jean Ithurriaga.
- Karl Bouda.
- Luis Mitxelena.
- Jose Azkarate.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

Euskaltzainburua
Resurreccion M.^a Azkue

Zadorlaria
Nazario Oleaga